

1916

Rekreatiban:

Un poco en serio, un poco en broma





1. Luis Zeniga
2. Pedro Manso de Zuñiga
3. Bruno Larrazabal
4. Mariano Adan de Yarza
5. Claudio Ibañez de Aldekoa
6. Cesareo Garavilla
7. Lorenzo Etxebarria
8. Buenaventura Aranbarri
9. Crescencio Arrinda
10. Javier Amias
11. Juan Mellica
12. Manuel Garavilla
13. Jose Lucio Etxebarria
14. Miguel Salinas
15. Jose Maria Bracho
16. Julian Tellaetxe

Carlos Solano

Carlos Solano Adan de Yarza Zubietako jauregian jaio zen 1888an, Lekeition iturriak jarri ziren urte berean. Irakurri dugu Socorroko markesaren titulua izan arren sekula ez zuela erabili. Politikari abertzalea izan zen, Mendexako alkate, Bizkaiko diputatu probintziala, Bizkai Buru Batzarreko partaidea, Euzkadi Buru Batzarreko lehendakariorde atzerrian... Baina guri pintore lana interesatzen zaigu. Auñamendi entziklopedian irakurri dugu gaztetan Madrilén bizi izan zela eta han Arte Ederrak ikasi zituela eta pintore aipagarria izan zela. Familian ez zen bakarra, antza denez, anaia Jose Marik ere karikaturak egiten zituen. Guk ez dugu bere obra ezagutzen, bakar-bakarrik *Recreativa* elkartean dagoen koadroa, eta pare bat karikatura gure eskuetara heldu direnak, bata gainera sinadura bakoa. Eta, ahaztu barik, Baionako museoko artxiboko aldizkari batean agertzen den Kaxarrankaren erreproduzioa. Badakigu baita prentsan irakurrita antzerki-dekoratuak ere egin zituela. Ez da asko baina...

Un poco en serio, un poco en broma, Carlos Solano, 1916



Tellaetxeren Lekeitio



Convenio

Reunidos en la Sala Consistorial de esta Villa de Lekeitio bajo protección y anuencia del Sr. Alcalde Don Fabian de Abaroa en la tertulia del gabinete proximo a dicha sala, se presentó por varios de los concurrentes un proyecto de sociedad recreativa...

Dibertimenturako elkarte hori 1863ko azaroaren 29an sortu zen eta bazkide sortzaileen artean zeuden Julian Tellaeche eta Modesto Tellaeche, Julian Tellaeche pintorearen aitta eta aittitta. 1864-2-5ean eratu zen lehen zuzendaritza batzordeko idazkari izan zen Modesto Tellaeche.





Ehun eta piko urtez (1867-1985 aldera arte) Udalletxeko bigarren solairuan izan zuen egoitza eta harako pintatu zuen Tellaetxek koadrotzar hori, hori da uste dudana behintzat. Tellaetxe arbasoen antzean elkarteko bazkidea zen, horregatik agertzen da Carlos Solanoren 1916ko karikaturan. Sasoi hartako koadroa delakoan nago, baina ez da agertzen Satur Abón adituak katalogatu zituen lanen artean eta ez du sinadurarik. Gainera ezin izan dut garai hartako elkarteko dokumentaziorik erabili, galduta ei dago.

Eta, hala ere, Tellaetxek pintatu zuela diot. Zer dela eta? Estiloarengatik, noski eta pare bat zirriborro aurkitu ditudalako zalantzak ezabatzen dituztenak. Sarean aurkitutako Tellaetxeren zirriborroa, bai ala bai, Recreativa elkarteko otzaradun emakumea pintatzeko erabili zen.



Ikerketa sakonago baten faltan hor dituzue koadroko xehetasun batzuk eta aurkitu ditugun bi zirriborroak. Garavillaren argazki bat erabili dugu, apur bat lehenagokoa, hori bai, ikus dezazuen orduko Lekeitio dela Tellaetxek pintatu zuena. Esaterako, Likona dorreko alboko eraikina oraindik altxatu barik agertzen da, seinale 1920 aurrekoa dela margolana.

